

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Alkatearen dekretua

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75, 75 bis eta 75 ter artikuluek ezartzen dute toki-korporazioetako kideek eta toki-erakundeen zerbitzura dauden langileek zer ordainsari-erregimen izango duten, eta toki-erakundeetan arduraldi eskusiboan gehienez zenbat kargu publiko egon daitezkeen mugatzen dute.

Lege horren 123.1 artikulua, bestalde, Udaltzari ematen dio Udaltzako kideen, horren idazkari nagusiaren, alkatearen, Tokiko Gobernu Batzarreko kideen eta Udaleko zuzendaritza-organoen ordainsari-erregimena ezartzeko eskumena, eta, eskumen hori baliatuta, Udaltzak arduraldi eskusiboko zein partzialeko karguak egiteko bete beharreko baldintzak ezarri zituen 2015eko ekainaren 30eko ebazpenaren bidez.

2019ko martxoaren 27an PP taldeak eskabide bat aurkeztu zuen Udaltzaren Idazkaritza Nagusian Blanca Lacunza Blázquez zinegotzia zinegotzi-zereginak arduraldi eskusiboan egitera igaro zedin 2019ko apirilaren 2tik aurrera.

Lacunza andereak arduraldi eskusiboko kargua bete ahal izateko beharrezko baldintzak betetzen dituela egiaztatu eta gero.

Xedatu dut

Lehena: Udaltza honetako zinegotzi Blanca Lacunza Blázquez andereak bere zinegotzi-zereginak arduraldi eskusiboan egin ditzala, eskatu bezala.

Bigarrena: 2019ko apirilaren 2aren biharamunetik izango ditu ondorioak dekretu honek, ALHAOko eta udalaren iragarki-taulako arauko argitalpena gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 27an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE